

PROGRAMAZIO LABURRA

IKASTETXEAREN IZENA	OLABIDE IKASTOLA							2017-2018		
ARLOA / GAIA	KIMIKA					DATA		2017-09-30		
ETAPA - MAILA	1 DBH		2 DBH		3 DBH		4 DBH	1 BATX.	2 BATX.	X

1	HELBURUAK: GUTXIENGO GAITASUN MODUAN DEFINITUAK
	<p>1.- Kimika klasikoaren lege, eredu eta teoriak erabiltzea kimikako fenomeno desberdinak interpretatu ahal izateko.</p> <p>2.- Kimikaren izaera eta mugak ulertzea eta aldi berean teknologia eta gizartearekiko duen eragina ezagutzea. Adibidez: negutegi efektua, euri azidoa ...</p> <p>3.- Zientzi ikerketaren estrategia esanguratsuak: problemak planteatzea, hipotesiak formulatu eta alderatzea, saiakuntzazko diseinuen plangintzak egitea, magnitudeak eta euren unitateak modu egokian erabiltzea .</p> <p>4.- Substantzia kimikoen formulak ezagutzea, izendatzen jakitea eta substantzia hauek ematen dituzten erreakzio kimikoak identifikatzea.</p> <p>5.- Eredu atomikoak deskribatu beraien mugak eta beraien garrantzia azalduz. Mekamika-kuantikoa-ren kontzeptuak plazaratu. Taula periodikoaren historia eta gaur egungo egitura ezagutzea eta hor agertzen diren elementuen ezaugarriak menperatu.</p> <p>6.- Lotura kimiko desberdinen ezaugarri garrantzitsuenak adierazi. Kobalenteetan Lewis-en egitura egin eta BMEBA eredu aplikatu geometria ondorioztatzeko.</p> <p>7.- Indar intermolekularrak ezagutu eta azaldu zein eragina duten konposatu batzuen propietatetan.</p> <p>8.- Prozesu kimiko batean definitu eta aplikatu zehaztasunez termodinamikaren lehenengo printzipioa, eta prozesu exotermiko eta endotermiko desberdinu entalpia-diagramak erabiliz. Formazio entalpia eta Lotura entalpia kontzeptuak aplikatu erreakzio baten entalpia kalkulatzeko eta prozesu kimiko baten espontaneitatea aurrean dagokion aldagaiak aztertuz.</p> <p>9.- Masa ekintzaren legea aplikatu oreka kimiko sinpleetan. Oreka ezaugarriak ezagutu, K_p eta K_c erlazionatu eta oreka eragina duten faktoreak aztertu. Hauspeatze erreakzioak, oreka heterogeneoen erdu izanik identifikatu</p> <p>10.- Definitu eta aplikatu ondorengo kontzeptuak: azidoa, basea, bikote konjokatua, pH-a, azido baten indarra, gatz baten hidrolisia, neutralizazio bolumetria...Uraren ioizazio oreka, pH kalkulua eta bere eragina eguneroko bizitzan menperatu</p> <p>11.- Elektroli transferentziako erreakzioak identifikatu, ioi-elektroi metodoaz doitzuz. Oxidazio eta erredukzio kontzeptua menperatu. Pila voltaikoa eta upel elektrolitikoa erkatu eta hauen aplikazio industrialak azaldu.</p> <p>14.- Funtzio organiko nagusien nomenklatura eta formulazioa menperatzea. Erreakzio organiko garrantzitsuenak ezagutu eta sintesi sinpleenak menperatu</p>

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
1 ebaluazioa	OR D.	2. ebaluazioa	OR D.	3. ebaluazioa	
Formulazio eta nomenklatura, bai ez-organikoa bai organikoa.	5	Lotura kimikoak	5	Oreka kimikoa (II)	6
Isomeria eta formula molekularren bilakaera birpasatu	4	Energia trukaketa erreakzio kimikoetan	19	Protoi transferentziako erreakzioak	14
Erreakzio organikoak eta laborategiko praktika	15	Zinetika Kimikoa	3	Elektroien transferentziako erreakzioak (Oxidazioa, Erredukzioa, Estekiometria, Pilak eta Upel elektrokimikoak)	12
Kimikaren alderdi kualitatiboak (gasak eta disoluzioak)	2	Oreka kimikoa (I)	6		
Materiaren egitura: Eredu mekaniko kuantikoa eta Taula periodikoa	6				

3 METODOLOGIA
<p>1.- Zientzi elkarteak onartutako kontzeptu eta teoriari buruzko informazioa ematen zaie ikasleei kontzeptuak barneratzeko, hainbat adibideen bitartez.</p> <p>3.- Lan praktikoa eta problemen ebazpena ikerketa txiki gisa planteatzen dira. Azaldutakoa aplikatzeko banakako lana zein talde lana burutu behar dute ikaslek.</p> <p>3.- Noizbehinka laborategira jotzea beharrezkoa izaten da, aurretik jaulkitako hipotesiek balio ote duten frogatzeko saiakuntza lana egitearren.</p> <p>4.- Kimikaren edukinak eta aplikazio praktikokoak gizartearengan duten eraginekin lotzen da, ingurugiroa beti kontuan izanik.</p>

4	BAILABIDEAK	
TESTU LIBURUA:		EDITORIALA:
KIMIKA Material propioa (aurkezpenak, apunteak, fotokopiak ...) Bideoak Laborategia		GILTZA

EBALUAZIO SISTEMA						
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK						
Ebaluaketaren erdian, gutxi gorabehera, ordu bateko kontrol bat egiten da, %30 balio du Ebaluaketaren amaieran bi orduko azterketa bat, %60 balio du Praktikak, egindako lanak, jarrerak %10 balio du Bataz bestekoa ez bada nahikora iristen ebaluaketaren errekupeazioa egiten zaie notak eta gero.						
KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA	KONTZEPT UAK	%45	PROZEDUR AK	%45	JARRE RAK	%10

6	BERRISKURAPEN SISTEMA	
Ebaluaketa bukatu ostean, azterketa bat, errekupeaketa, egiten da Kurtsoaren bukaeran, maiatzean, ebaluaketaren bat utzi duen ikasleak nahikotasuneko azterketa egiten du. Kurtsoa gainditzen ez duen ikasleak ekainean, ez-ohiko deialdian, ikasturte osoan emandako materiaren azterketa egiten du.		